

2014.09.8
LURRALDE ANTOLAMENDUKO 13. bilerako AKTA

O.A., A.R., D.E., K.F., A.G., I.A.

Gai ordena:

- Bileren ordutegiak/data
- Bidegorria
- Bizikleta elektrikoak
- Beko kaleko proiektua
- Inbertsioak egiteko dirulaguntzak
- 2015 aurrekontuak

– **Bileren ordutegiak/data**

Gaurko bilera 18:00etan hasi dugu baina hurrengoak 19:00etan egingo ditugu, jendea dagoelako 18:00etan etortzeko arazoak dituena. Hurrengo bileretan O.A.ri dagozkion gaiak hasieran landuko dira eta horrela bileratik lehenago atera ahal izango da.

– **Bidegorria**

Alkateak eta arkitektoak obraren gorabehera batzuk azaldu dituzte. Ibareseko bidegurutzetik herrirarteko bidean argiteria berritzeko aurrekontuak eskatuko direla adostu da.

Bidegorriaren lanetan Ibaresetik hasi eta San Juan bitarteko farolak aldatuko dira. San Juan aldean bi farola geratuko dira alimentatzeko eta horretarako abonatu berria egingo da. Zalantza sortu da bi farola horiek GFA bere gain hartzeko eskatu edo ez, eta, azkenean, erabaki da hiri lurzorukoak udalak bere gain hartzea. Ondorioz, Zelatxotik Ibaresera bitarte dauden farolak udalak hartuko lituzke momentuz, baina berritzea lortuko balitz bidegorriak hartu beharko lituzke. Horretarako aurrekontuak eskatzea erabaki da.

– **Bizikleta elektrikoak**

EVEren dirulanguntzen deialdia atera da eta azaroak 15 arte egin daiteke eskaera. Adostu dugu udaletxearen dirulaguntzak martxan jartzea. Horretarako aldizkarian (iraila bukaeran aterako dena) informazioa argitaratuko dugu eta Belenek prestatutako araudia erabiliko dugu, baina laguntza izena ematen duten 5 lagunei eman beharrean apuntatzen direnen artean zozketatuko dira.

Alberto Zugaitzekin hitz egin nahian dabil, festetarako bizikleta bat ekarri eta erakusgai jartzeko.

– **Beko kaleko proiektua**

Pasa den astean alkatea eta arkitektoa Itten-ekin bildu ziren. Prozesua martxan da egutegi honekin: Irailak 24, arratsaldeko 6etan herri batzarra egingo da parte hartze prozesua aurkezteko, beko kaleko egoera zein den azaltzeko eta herritarren ekarpenak jasotzeko. Urriak 15ean, jasotako ekarpenak kontutan hartuta aurre-proiektu bat aurkeztuko da beste herri batzar batean.

– **Inbertsioak egiteko dirulaguntzak**

Abuztuan diputazioaren prentsa ohar bat ikusi genuen herri txikientzat inbertsioak egiteko diru laguntzak zeudela esanez. Arkitektoak esan digu jakinaren gainean geundela aurretik eta hainbat proiektu txiki aurkeztuko dira. Datorren astean bukatzen da epea (elizako plazako lanak, Urkiko frontoia, San Juaneko saneamendua, Nautiko pareko soterramendua...). D.E.ek proposatu du zubiko zebrabidea altxatzeko aurrekontua ere eskatzea/aztertzea.

– **2015 aurrekontuak**

Urtea amaitu aurretik lantaldeak proposatu beharko ditu hirigintzako inbertsioak. Horregatik proposamenak lantzen hasi behar gara hurrengo bileretan. Dagoeneko ideia batzuk atera dira: Herriko argiteriaren berrikuntza integrala, eskolan egin beharreko konponketak (adibidez kafekaldea, auditoria bat egin...), Beko Kaleko proiektutik eratorri daitezken lanak...